

**LAIKO-SENSIBILITATEA.
EBANJELIZATZEA TA ESPIRITUALITATEA**

I. SARRERA

a) *Zeri buruz*: Lan onetan ebanjelizatzea eta espiritualitatea alkartzen dira, laikoen sensibilitateari begira. Laikoak, emen, kristau sekularrak dira: klerikuak eta erlijiosoak ez izanik, Jainko-erriaren atal diranak eta bizitzaren alderdi sekularrak santutzera deituak (LG 31). Orain ez dago definizio au aztertu beharrik. Naiko dogu oraingoz nortzuk diran laikoak, edo sekularrak, gogoratzea. Olan, ba, sekularrak gogoan berariz izanik aztertu bear dogu ebanjelizatze eta espiritualitatearen arteko erlazioa.

b) *Eliz-taldeen bereizkuntzak erlatibizatu*. Zillegi bedi asikera onetan bereizkuntza au eta laikoen aparteko ardua izatea pizka bat erlatibizatzea. Ez bereizkuntza eta aipaturiko aparteko arreta ukatzeko, edo aaztutzeko; bai, ostera, dagokion neurrian ezarteko. Au esan nai dot: Gaurko munduaren aurrean, eta kristau fedeak gaur dituan arazo eta barritu-bearraren aurrean, laikoen eta ez-laikoen espiritualitatearen ez-bardintasunak bigarren maillakoak dirala. Ez dira orregaitik gitxiestekoak, eta dana izan bear da gogoan batera, edo batera-antzean. Baiña beste au azpimarratu bearrekoa dogu: Bereizkuntzak gorabera, kristau

guztiak gagozala arazo andi eta sakonaren aurrean, eta, bereizpenak arretaz egitean, ezin daikegula oifarrizko arazo au aaztu.

Bereizkuntzari eta erlatibizatzeari buruz, istoriatiko oar batek lagundu leikigu. Erlijioso bizitzak, Elizaren istorian, gain gairietik begituta, aldi andi oneek izan ditu: 1. Eremuko Gurasoen aldia (300-500). 2. Monakismoaren aldia (500-1200). 3. Mendikanteen aldia (1200-1500). Orden apostolikuen aldia (1500-1800). 5. Irakaskuntza, geiso eta mixiño-kongregazioen aldia (1800-2000). Ikuspen eskematikoa da, jakiña, baiña ondorio au ateratzen dogu orretatik: Aldi barri onetan, erlijiosoen bizitza geroago eta geiago urbidu dala laikoen mundura eta istoriara. Zeatzago ikusi bearrekoa dogu au, zalantza barik, eta andizka bakarrik egia: badakigu, esate baterako (eta kasu bat bakarrik aipatzeko), San Bernardo 12. mendean oso artua, marapillatua, bizi izan zala orduko kristau munduan. Alan ere, aparte bizi zan monastegitik etortzen zan, eta ara itzuli. Orregaitik, andizka izan arren, egia da erlijiosoen bizitza istorian zear munduratu egin dala. Alderdi onetatik "fuga mundi" geroago eta gitxiagoa izan da. Teologi-ideiatan eta barne-bizitzan, espiritualitatean, "fuga mundi" jarre-rak jarraitu izan dabe Vaticano II. Kontzilliora arte; eta aztertu bearrekoa litzake ia emeretzigarren mendeko Kongregazioetan aurreko erlijioso familietan baiño "fuga mundi" geiago ala gitxiago izan zan. Dana dala, ekintzan eta kanpoko bizitzan beintzat inplikazio ori gertatu izan da istorian zear. Banakuntzarik andienetik, urbiltzera. Eta, gaur egunean, barru-jarreran, istoriara, kreaziora, gizakundera da mobimentua. Aldakuntza onetan kristau siñismenaren barne-ikustea aldatzen da, eta laikoen bizitza aintzakotzat artzen. Erlijiosoak (eta apaizak), kristau erri osoak bezala, zer dan gaur kristau fedea eta bizitza, eta, beraz, zer euren izatea (identitatea) itauntzen dabe. Orregaitik diñot bereizkuntza a, beti be bidezkoa izan arren, erlatibizatu egin bear dala.

Laikoen aparteko arreta izan arren, esango ditugunak, funtsezkoak izanik (ez sakonak diralako, elementalak, asi-masiak diralako baiño), guztientzat izan leitekez.

II. ESPIRITUALITATEA

1. *Istorian zear*. Espiritualitate itzaren eta errealtatearen irudi istorikoa emoteko ikerketa luzea egin beharko litzake, bere istoria ezberdina eta luzea izan da eta, kristau fedearena aihakoa. Baiña gogoeta onekin asi gaitkez: espiritualitate itza entzutean, ze irudi datorkigu? Jakiña da Elizako Gurasoen aldirian teologia osoa bateratsua goa zana: dogma, morala eta espiritualitatea batera ebiltzan. Eskolastika aldirian (jausialdirian) gertatu zan banakuntzak gure egunetara arte jarraitu izan dau.

a) Espiritualitatea talde berezientzak geratu zan: monje, elizgizon eta laiko talde berezientzat. Izan be, beti sortu izan dira laikoen mobimentuak, baiña talde berezi lez. Kristauen geien-goak, ia danak, katekismoko dotrina eta morala, eta debozioak, zituen naiko (askorentzat ori gertatu zan benetako espiritualitatearen hide). Agirian, espiritualitatea elitista biurtu zan, erlejiño aldiritik eta kultura aldiritik aukeratuentzakoa. Aparteko talde erlijiosoak zaintzen eben, eta ari buruzko idazkiak kulturadunentzat ziran sarriago.

b) Orrela, ez bearezkotzat eukia izan zan, apaindurazkotzat. Bearezko ez dan perfezioaren bila dabiltzanentzat. Talde berezi orrentzat garrantzi andikoa, euren izakeraren zergaitia eta elburua zanez, baiña kristau erri osoarentzat azken baten ez bearezkoa.

c) Espiritualitatearen beste konotazio ezezkorra intimismoa, barrukoikeria izan da, batzuetan. Dualismoan oiñarritua: arima eta gorputza, Jaungoikoa eta istoria. Espiritualitatea Jainkoarekiko artuemonetan jartzen zan, mundua itzirik. Eta Jaungoiko ori norbere barruan aurkitzan zan; beraz, norbere barruari begira bizi bear zan, norbere barrua zainduz eta perfezionatuz. Alderdi batetik, "barrua" psikologikoki ulertzen da emen, ez teologikoki: azkenengo au personearen erdigunea da, bere izaterik beifina, eta Jaungoikoari eta besteai irekitzeko gai dana. Beste alderdi batetik, intimismoak istoria bertanbera izten dau: betikotasuna eta Jaungoikoa ez danez, utsa eta ezereza balitz legez. Baiña,



nai ta nai ez, gizona istoria da, eta or aurkitu bear dau Jaungoikoa be, or aurkitzen ditu Jainko-seme-alabak.

Istoriako desbideratze oneek aipatuz ez dogu espiritualitate istoria orretara mugatu nai, eta gitxiago alderdi ezezkor orreek geiegi aspimarratuz. Alan be, askoren espiritualitate irudian olako zerbait izan da, espiritualitateari buruzko itzak eta bizikizun batzuk irudi orri bide emon deutsoela.

Olan ta guztiz ere, "espiritualitate" itzak ez dau bere duintasuna, itzala, galdu. Kultura kontesto ezbaridñetan erabilten da gaur, baita erlijioso izan nai ez daben kultura arloetan ere; artean eta poesian bereziki. Gaurko Jainko personal bako erlijio-tasun barrietan "espiritualitate" itzak gorengo garrantzia dauka.

Baiña, garrantsitsuago dana, espiritualitatearen beraren, errealitatearen, bearrizana asmatzen da gaur. Eta joera au bene-

takotasun, askatasun eta erlijio-trazendentzi-bearrizantetik sortzen da. Teknika zibilizazioak ez ditu bere agintzariak bete: konsumismoa, masifikazio eta manipulazioa ekarri ditu (obari positiboakaz batera). Eta gizona oker oneek artezteko gai izan arren (zelanbait), teknika bere garapen objektiboan eta giza-eskuetan bildurgarri ere badala konturatu gara. Erlejiño moralistiko ritualistak ere ez deitso giza egarriari erantzuten. Gitxiago erlejiño fanatikoak, gizadiaren bakean eta askatasunean aurrera egin bearrean, atzera eragiten dauanak. Baiña ezta erlejiño arin eta merkeak, arintasunak berak erakusten dau aren ezereza eta.

2. *Espiritualitate ideia*. Guk espiritualitateaz zer esan nai dogun, Alkartasun Barritik artzen dogu. Ango "spiritus" (Spiritus) da erreferentzia, iturria. Texto batzuk aipatuko ditugu: Asikera-ko Eliza espirituz beterik egoan; ori ikusten da, poz giroan, Apostoluen Egiñetan: 2,4; 1,5; 7,55; 19, 2-6, etab. Espiritu onek alkartzen gaitu Jaunaren gorputz aintzatsuagaz (1 Kor 6,17). Arek adierazoten deusku Jaungoikoaren seme garala (Erre 8, 16). Espiritu onek eroan gaitu gizon aragikoak barik espiritutar-rrak izatera (Erm 8,9; 1 Kor 3,1-4). Berak isuri dau gure biotzetan Jainko-maitasuna (Erm 5,5). Berak egiten dau anaïen arteko bakea (Gal 5,22). Espiritu onek damosku askatasunean bizitze-ko aalmena (Gal 5,18). Ari esker bizi gara Jainkoarentzat Kristo-gan (Erm 6,10); 1 Pe 4,6).

Baiña ez gagoz berbizturik; bidez goaz, eta, orretan, Espirituari jarraitzen saiatzen gara (Gal 5,23). Oindiño "aragi" izateak ez deusku osorik espiritu-eraz bizitzen izten: "Ez dot egiten, ba, nai dodan ona, nai ez dodan txarra baiño. Eta nai ez dodana egiten badot, ez naz neu egiten dauana, nigan dan pekatua baiño" (Erm 7,20). "Oial-txabola onetan gagozan artean, intzirika gabiltz zapalduta (2 Kor 5,6). Alan ere, "semeak Semeagan" garala somatzen dogu, eta ola bizi bear dogula (Gal 4, 6-7), Aitar-en maitasunak sortuak legez" (1 Jn 4,7). "Alkar maite badogu, Jaungoikoa gugan dago eta bere maitasuna gugan osoa da. Onetan dakigu Beragan gagozana eta Bera gugan: bere Espiri-

tua emon deuskun onetan" (1 Jn 4,12-13). "Jaungoikoa Espiritu da" (Jn 4,24).


Testo asko aipatu leiteke, kristau izatearen barritasuna eta mobimentua "espiritu" irudi pean azaltzen da Alkartasun Barrian eta. Aipatutakoak onetarako ekarri ditugu: Gaur espiritualitatea erabiltean kristiñau izatearentzat ezinbestekoa dana ulertzen dogula adierazteko, kristautasunaren muiña eta bizia bera. Beraz, guk emen espiritualitatearen esanaia Alkartasun Barriko asikerako bizikizunetatik atera nai dogu, edo geroko Eliz-istoriako esperientziak leenengo aren zentzuan eta argitan ulertzen ditugu (gerokoak asikerakoa edatu eta aberastu arren).

Orain ez da zeaztasun geiago bear: jarraian esango ditugunetatik ikusiko da bearbada obeto zer dan espiritualitate (edo beti ere ez da ain argi geratuko, olako beste errealitateen antzera).

III. EBANJELIZATZEA ETA ESPIRITUALITATEA

1. *Espiritualitatea bearrezko*. Ebanjelizatzea (ebanjelizatze barria) ez da suar utsa. Jakiña, suar barria bear da, baiña ez da naiko. Ez da naiko borondatea; gauzak argi euki ezker, borondatea jarrea naiko balitz bezala. Jarrera moralistikoa litzake. Ebanjelizatze barria oster, leenengo ta bein, geuretzeko da, eta au esan nai dau: argitu gaizala geu ebanjelioaren argi gozoak, eta sendogariak. Au ez dogu espiritualitatearen bearrizana baiño, barne-jarrera barria, Jaungoikoarekiko eta istoriarekiko jarrea barria.

K. Rahner teologoak bere sasoiaren esana da au: "Kontzilio ondorengo espiritualitate arazoak arazo garrantzitsu izaten jarraitzen dau. Geiago oindiño: ondo ulertuz, arazo erabatekoa da. Izan ere, Kontzilioak Elizaren irudi soziala obetzea baiño lortu edo asi ez balcu, edo bere gizarte itzala geiagotzea, liturgia erakarriagoa edo errikoiagoa eratzea, Elizaren administrazio sarean askatasuna eta demokrazia geitzea edo azaleko tolerantzia andiagotzea, gizonari zoriona eskeintzen deutoen indarren artean bere aurkezpe-



Frantziako katoliko gazteak gosearen aurka.

na obetzea, orduan ez litzakean lortu izango Elizan, Eliza danez, lortu bear dan ezer: gizonak, gutariko bakoitzak, geiago maita dagiala Jaungoikoa, fede geiago, itxaropen geiago eta Jaungoiko ta lagun urkoaganako maitasun geiago izan dagiala, obeto gurtu dagiala Jaungoikoa "espirituz eta egiaz", biotzetikoago onartu dagizala bizitzako eta eriotzako illunpeak, bere askatasunaren jabeago izan daitela eta orren arabera jokatu dagiala" (*Espiritualidad antigua y actual*, ET, VII, 14-15).

Itz oneek Vaticano II. osoa, bere aalegin eskergaz, gitxirako izango litzakela diñoa espiritualitate barik. Bardin esan bear da ebanjelizatze barriari buruz: jarrera barria; alan ere, fede-ikuste barritik datorren barru-jarrera.

2. *Bearrizan onen zantzuak*. Bearrizanaren agerpide sozio- lojikoan artean oneek izendatu leitez:

a) Sortaldeko meditazio-bideekiko jakin-naia. Moda urteak leenago izan ziran, baiña or jarraitzen dau oindiño interesak:

Yoga eta Zen meditazio-bideetan batez be. Bideok norbere la-saitasuna eta baretasuna lortuz gaiñera, nolabaiteko trazenden-tziaren billaketa ere badira. Alan be, mobimentu indibiduala da izan, eta gizarteari buruz eragin gitxikoa onen eraldaketa lor-tzeko.

b) Komunitate mobimentuak, bai beste kristau Elizetan, bai Eliza Katolikuan, naiko ugaritu dira: Barriztapen karismatiku taldeak, Neokatekumenalak, Oifñarri-komunitateak, otoi-tal-deak; gogoan eukitekoak otoi-tz eta gogoketa etxeak. Danak be gitxiengoa dira, jakiña, baiña egarriaren agerpidetzat aipatu lei-tekez.

c) Oni lotuta dago, gure kontesto kulturaletik kanpo, Erdi-Amerikan eta Ego-Amerikan sektak dauken erakarpena. Eliza Katolikua, istorikoki, instituzio andi lez agertzen da, ofizial, urrin eta ritual, nai ta asko aldatu azken aldiotan bizitasunean. Sekten erakarpena ain zuzen bizitasunean, otoi-tzean eta urbilta-sunean datza (alan be gizarte egiturei gitxiago begiratzen deu-tsela).

d) Sartaldean, eta gure errian, andia da espiritualitatearen bearrizana, au da, kristau siñismena espiritualitatez artzearen falta. Ermen ez dago sekten eragiñik, baiña bai utsaren inpre-sioa. Leen, kristau fedea moralismoz kutsututa artzen zan sarri, katekismoko dotriña era sinplean ikasita. Deboziazko ekintzak berotzen eben fede-jarrera. Kontzilioari esker fede-aurkezpena eta liturjia barrituak izan arren, fedearen ulermenean eta bizike-ran zelanbaiteko utsa asmatzen da. Orren agerpide da, esate ba-terako, zein errez joten daben ez gitxik ezkutuzko jakintzara (okultismora), eta zein errez apurtzen diran kristau itz emonak. "Erljio-zaletasun barria" be (New Age eta abar) orren zantzutzat artu bear dogu.

Orregaitik, fede "esperimentatuaren" bearrizana, au da, espi-ritualitatearen bearrizana. Leenengo kristauak (baiña ez leenen-goak bakarrik) asmatu ebena gogoratu nai dogu itz orren bidez. Baliteke bardiña ez izatea; baiña, beintzat, entzuna eta ikasia

dan baiño zerbait geiago. Badakigu "esperientzi" itza anbiguoia dana, leenengo Jaungoikoaren trazendentziari buruz, eta gero sentimentukeriaz naasta leitekeelako. Alan be, personalizazioa adierazteko balio deusku emen.

IV. GAURKO ESPIRITUALITATEAREN NORANTZAKOA

Gaurko espiritualitatearen norantzako sakon-zabala esatea, batez be berba gitxitan, geiegi nai izatea da. Beste alde batetik, gaurko espiritualitateak ebanjelioko bidetik jarraituko dau eta, beraz, asmatzen ibilli barik geiena aurreko iturrietatik artuko dau. Alan be, alderdi batzuk azpimarratu leitekez:

1. Bikoizkeriatik (dualismotik) alde egitea. Gauza ondo eza-gutua, baiña espiritualitatean, au da, egitezko bizipenean, beste jazoten da. Erljioaren kritikak, Bibliako errebelazioa istoriako jazokun legez ezagutzeak, anai-maitasunetik sortzen dan gizarte-ekintzak eta kristautasuna askatzaille izateak ez deusoe biderik emoten espiritualitate geldo eta igeskariari. Badakigu ez dagoala politika-neutraltasunik, ezta errugetasunik. Orregaitik, eta beste era batera esanda:

a) Gaurko espiritualitateak itzi dau indibidualismoa eta intimismoa (bakarkeria eta barrukoikeria). Teorian, itzi dau, beste da egitezko bizitzan. Baliteke au betiko arazoa izatea, bein ta betiko gainditzen ez dana, kulturak eta giroak beste barik emondako bezala. Alan be, teoria zuzenak eragin andia dauka bizitzan. Espirituaren bidea ez da, beraz, norbere perfeziora zuzenduriko gurtza-oikuneen bidea. Lagun urkoagaz, Eleizeagaz eta gizadiagaz topo egin bear dau nai ta nai ez. Ori da istoriaren eta istoriako Jaungoikoa. Norbera ez da besteak baiño garantzi-tsuagoa (besteen ardurarik ez izateraiño), eta norbere barrua ez da Jaungoikoa, edo barru ori (barru psikolojiko) ez da Jaungoikoaren toki berezia: istoria guztia da Jaungoikoaren lekua.

b) Era berean, ondorioz, gaurko espiritualitateak ez dau Jaungoikoa geroko bizitzan bakarrik billatzen, Aren salbamena

eta Erreïñua gerorako itziz, emengo mundua ezerezaren esku itziz. Emen jazoten danak garrantzirik andiena dauka Jaungoikoarentzat (istoriaren eta istoriako Jaungoikoa danez). Kristau fedeko Jaungoikoak gizona dau maite, eta onen bizia eta betea: au da fedearen guna, eta, beraz, oraiña eta geroa argi orretan bi-zi bear dira.

Ez da au esanez eskatolojiaren egia illuntzen (eskatolojia bako siñismena azken baten utsa litzake). Beste au diñogu bakarririk: kristau eskatolojiak ez dauala istoria laiñotzen; bat bakarra da eskatolopian eta istorian emoten dan Jaungoikoa.

2. Gaurko espiritualitateak fedearen sakona billatzen dau. Egiatzko espiritualitateak beti billatu izan dau, eta Eleizaren kondairan irakasle eta lekuko bikaiñak ditugu onetan, eta zalantza barik konta-ezin-alak billatu izan dabe fede sakon ori, biziz. Baiña orain au azpimarratuz, gure aldiaren bearrian larria dogu gogoan. Gure aldiaren bearri ori, fedearekin zerikusia dauana, ezaguna dogu, eta ez dago emen barriro azaldu bearrik; aipatu soillik zerbait: Erlijio irudi asko jausi egin dira, eta, beraz, fedea barriro pentsatu bearra daukagu, esentziaratu bearra. Sekularismoan erlijioaren bearrizana ezabatu bezala egiten da. Kontsumismoak eta bizitzako arinkeri eta azalkeriak ez dau fede arazoan arretarik jarten. Eta munduko txarraren indarra gogorra da gure fede-irudien kontra. Izendatu leitekezan erlijio-zantzuak beste zerbait billatzen dabe.

Ondorioz, gaurko espiritualitatea fede sakonean sustraitu bearra dogu, eta geroago ta geiago: ziurtasun eta bizikizun guztiak baiñi arago dagoan fedean. Fedea fede izan daitela, ez siñiskeria, ez irudikizun, ez tradizio. Eraso eta zalantza guztiak baiño arago, nai ta zauritu eziña ez izan. Au ez talde berezi batzuentzat. Gaurko kristauak olan sendotu bearra dauka fedean. Ez dogu esan nai aurrekoak olako siñismenik ez eukenik. Oso sendoak izan ziran, geuk ezagutu ditugunak ere. Baiña gaur orren bearrizana asmatzen dogu aparteko eraz, aipaturiko eragiñakaitik. Oni jarrai, gaurko egoera kulturalak fede sustraitikoa-

goaren aukera emoren deuskula esan geinke. Orretarako pedagogia edo mistagojia egokira ez gara aldu geienbat, fede-munduko konpromisoak eta siñismena bera zelako arinkeriz izten diran ikusita. Emen, baiña, ezkutu andia asmatzen dogu, antzez eziketa ona izan eta teolojiaz ornidutakoak ere izan leitekez orrelakoak eta.

Fede sakonaren billaketa orretan leku berezi bi izendatu leitekez:

a) Otoitza. Ez da nekatu bear onen garrantzia eta bearra azpimarratzen: fede-bilatze apalaren jarreran murgiltzea esan nai dau (beste era askotara esan leiteke). Badakigu itz au omengalduta daukagula ez gitxitan. Alperriko, azaleko, legekerizko deritzegu otoitz ekintza askori, geureai eta besteena. Alan be, omen-galdubako itzik ez dago. Guk otoitza diñogunean barrutiko jarrera osoa esan gure dogu, ebanjelioan egiaz agiri dana. Olako jarrerak fedea bear dau aurretik; baiña beste alde batetik, fedearen lekua eta fede-indargarri dogu: fedea fede izatera dator otoitzean. Gaur egunean, esandakoagaitik, ezinbestekoa dogu, aparteko eraz, otoitza (otoitzak, errezuak baiño arago dagoana). Beti bearrizko izan dana gaur premiazkoago biurtu jaku, esandako zentzuan.

b) Fedea zaintzeko (bere sakona asmatzeko) beste bearrezko bidea gaurko kurutzeratuekin bat egitea dogu. Bigarren lekuan jarri dogulako ez dogu ezan gura bigarren maillakoa danik. "Bide" esan dogu, baiña geiago da: gure kristau fedearen egia, benetakotasuna dago or jokoan. Baiña subjektiboki ere, norberaren fedeari begira ere, bat egite ori geure siñismena zaintzeko lekua dogu. Emonaz (maitasunean amonaz) zaintzen da fedea. Elizaren siñisgarritasuna datza emen, baiña baita geure fede personalaren egia eta jarraipena ere. Leen, istoriaren eta istoriako Jaungoikoz egin dogu berba: ifion baiño argiago datorkigu Jaungoikoa beartsuengan (Mt 25,31-46).

3. Gaurko espiritualitateak bikoiztasunen sintesia, alkarbiltzea egingo dau: Jaungoikoa eta lagun-urkoa, istoria eta eskato-



Vaticano II.

lojia, otoitza eta ekintza istorikoa, espirituzko askatasuna eta askapen lurterra, etabar. Bikoiztasunak or dagoz, eta or egon bear dabe. Bikoiztasunezko itz bat artu eta absoluto biurtzen danean, dualismoa daukagu: errealitatearen balora osoa baten jarten da, bestea ezeraztuta.

Bikoiztasuna dogu sagradu-profanoa. Dualismoan (espiritualitate istorian zear) "sagrada" artu izan da ia balora bakartzat (Jaungoikoaren mundua; baiña dualismoan ain zuzen be Jaungoikoa erdizka bakarrik ulertzen da). Alkarbiltzeak au esan gura dau: "Sagrada" bakarrik ez dala Jaungoikoaren lekua; "profanoa" be Jaungoikoaren lekua dala; eta, beraz, profano barik ezin leitekela Jaungoikoa aurkitu. "Sagrada" bera ere bitartekoa da (mediazioa), ez Jaungoikoa eta Erreiñua. Biak alkarbiltzen diranean, "sagraduak" "profanora" bialtzen dau, eta alde-rantziz; alkarren bearrizana dabe, eta orrela dira errealitatea.

Au olan ulertu eta biziz onartzeko, leen aipatu dogun otoitza "kontenplazio" biurtzen da. Kontenplazioa jarrera bateragillea dogu: "sagraduan" "profanoa" ikusten dau sartuta, eta profanoaren biotzean sagradua. Ez da arritzekoa, beraz, (nai ta nabarmena izan) Askapen teolojia inguruan espiritualitate eta kontenplazio gaiak dituen idazkiak agertu izatea.

V. LAIKOEN ESPIRITUALITATEA

1. Jakiña danez, Vaticano II garrenaren eklesiologian ideia oiñarrizko eta heteragillea "Jainko-erria" da (LG II. atala). Jainkoaren ekintzak sortutako erria, istorian zear. Eliza eta munduaren arteko artuemona barriro ikusi zan GS agirian: azkenengo onetan Eliza mundura bialdua ezeze, munduan dago eta munduko mobimentuan parte artzen dau. Jakiña, munduan izate au Eliza guztiari dagokio. Beraz, asikeran esan dogunez, Eliz-barruko bereizkuntzak erlatibizatu egin ditugu; errealak izan arren, bigarren maillako garrantzia dauke: Ebanjelioaren aurren neurtu bear dogu hurua danok, eta gaurko munduaren erronkak danok astintzen gaitue.

LG agiriak (31 z.) sekulartasunean jarten dau laikoaren bereizkuntza: "bizitzaren alderdi sekularrak santutzera deituak". Uste dot au gaur be ondo ulertu daikegula, neurritz artu ezkeru. Sagradu eta profano dualismo gabe, eta, beraz, bereizkuntza geiago eta gitxiagoan soilik ipiñita. Argi dago apaiz eta erlijioso asko (eta zelanbait danak ere bai) ekintza sekularretan dabiltzala, irakasketa dala, gaixo-zaintza dala, edo kultura, etabar. Eta alderantziz ere gerta daiteke. Baiña orokorki arturik, laikoak aparteko eraz geiago mobitzen dira arazo sekularretan, euren bizitza eragaitik. "Aparteko eraz euri dagokie lurreko errealitateak, onei estu lotuta dagozanez, argitu eta zuzentzea, errealitateok beñi Kristoren arauz izan eta aurrera egin dagien eta Egillearen eta Salbatzaillearen aintzarako izan daitezzen" (LG 31 z.).

Laikoaren espiritualitatea, kristau guztiera legez, Kristogan oiñarritzen da guztiz: Kristorena da, onek bere Espiritua emo-

ten deutso, eta munduaren erdian izten dau bere biziak bizitzen, eta bizi au barreiatzen. Vaticano II.ak, jakiña danez, laikoak iru alderdi oneetan artzen dauala parte Kristoren izatean irakasten dau:

a) Kristoren apaizgoan: laikoaren bizitza "gurtza espiritual" da, "opari espiritual" (LG 10; 34; ikus 1 Pe 2,5).

b) Kristoren profeta izatean parte artuz, Aren lekuko egiten da laikoa, eta onen bidez ebanjelizatzeak "izakera berezia eta eragin apartekoa lortzen dau, munduko egoera arruntetan egiten danez" (LG 35).

c) Kristoren erregetzan parte artzeak askatasuna esan nai dau: norberarena, besteena, gauza guztiena, "jainko-semeen askatasun aintzatsuan parte izan dagien" (LG 36). Salbamen askatzaillea leku guztietara eroateko konpromisoa.

Labur esanda, laikoak, berez eta orokorki, bizi diran "lekuan" (sekularitasuna) bizi dabe euren Jainko-seme-alaba izatea, or daroe Kristoren salbamen askatzaillea lagun-urkoengana, eta orrela dira Eliza ebanjelizatzaillaren parte. Onetaz zeaztasun asko eztabaitu leitekez, baiña izan bedi naiko oraingoz gure asmurako.

2. Azpimarratu bear litzakezan jarrerak oneek izan leitekez:



a) Laikoak, eta guztiok, oindiño au barneratu bear dogu: bizitza bera dala graziaren lekua. Familiako, lanbideko, gizarteko ekintzak ez dira neutroak, eta asmu eta aldi sagraduen bidez onbideratu bearrekoak: egite orreek euren izatean dira onak, onerakoak. Giza eraz burutzeko, barru-kalitatez egiñak izan bear dabe, baiña ez au kanpotik jartorkon ontasuna balitz bezala. Dana dala, bizitza osoa da bere osotasunean eta gorabeera guztiakaz, graziaren lekua. Bizitza orretan sartzen dira aparteko eraz "sagraduak" diran uneak.

Beraz, laikoak eurak diran eta egiten daben orretan billatu eta burutu bear dabe espiritualitatea, beti be Jesusen Espirituari eta aldiaren zantzuei adi. Argi dago diñogunak ez daukala azalkeko bizitza ariñarekin zer ikusirik.

b) Oindiño, gure artean, Eliz-kontzientzia, eta ondoriozko erantzukizuna ez dira naiakoak. Ez dogu au Elizeari begira esaten, Ebanjelioari begira baiño, eta, beraz, munduari begira. Beste leku batzuetan, erriaren izakeragaitik, istoria bide diferenteakaitik, edo gizarte egoeragaitik, onetan aurreratuko ikusten ditugu. Gure Eliza badakigu oso klerikala izan dana (au errazoi bakarra izan ez arren).

c) Kontzientzi orretan aurreratzeko, prestakuntza eta alkar-gogoetaren barrizana ikusten da. Persona eta talde batzuk badoaz orretan aurrera, katekesian sakon konprometiduak edo kristau talde eta mobimentueteko parte dirala, eta abar. Euskeraz gitxiago trebatzen dira, ezaguna dogun egoeragaitik.

d) Laikoak (apaizak eta erlijiosoak legez) kristau bereizketa egitera oitu bear dabe geiago (erantzukizunaren gogoeta): familia, lanbide, gizarte, politika eta kultura arazoak, erriari eta munduari buruz, Kristoren mezuan eta izateaz aztertzeke. Badakitu Kristoren mezua gun "seme" eta "anaiak" izatean datzala.

Baionan, 1994.9.2

Luis Arostegi